


Aurkezpena

2014 BAROMETROA



ikuspegi

Immigrazioaren Euskal Behatokia
Observatorio Vasco de Inmigración



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

ERRESOLUTIOA 2014/10
POLITIKARI BAZKARITZA
Kontseilua / Consello
DEPARTAMENTO DE EMPLEO
Y POLÍTICAS SOCIALES
Departamentuak / Departamentos
y Servicios / Diensteburuak



Universidad
del País Vasco Euskal Herriko
Unibertsitatea


Fitxa teknikoa

- Egindako inkestak: 1.200 (NC = 95 %, sigma = 1,96, eta Akatsa = +/- 2,82%)
- Inkestak lurraldeka: Araba 400 (+/-4,9%), Gipuzkoa 400 (+/-4,9%) eta Bizkaia 400 (+/-4,9%)
- Etxez etxeko inkesta pertsonala 18 urtetik gorako pertsoneri
- Laginketa geruzatua habitat-tamainaren, adinaren eta sexuaren araberako kuotekin
- Etxeen aukeraketa: ausazko bideen sistema
- 61 laginketa-puntu 29 udalerritan banatuta (6 Araban, 11 Gipuzkoan eta 12 Bizkaian)
- Laginaren haztapena (eragile zuzentzaileak) lurraldeka, habitat-neurri, adin eta sexuaren arabera, EAEko datuak azaltzean

1


Arazoaren pertzepzioa

Zure ustez, gaur egun, zein dira Euskadin ditugun 3 arazo nagusiak?
(Gehienez ere 3 erantzun: bat-bateko erantzuna)



- Immigrazioa ez da euskal gizartearen arazo nagusitzat hartzen; izan ere, % 2k aipatu du berez, aldez aurretik gairik iradoki gabe, Euskadiko arazo nagusi gisa. Guztira, % 12,1ek aipatu dute.
- 2013ko datuekin alderatuta, immigrazioaren arazoaren pertzepzioak gora egin du, % 7,2tik % 12,1era. Krisi ekonomiko sakon honetan, hauek dira, herritarren iritziz, Euskadik dituen arazo nagusiak: langabezia, arazo ekonomikoak, klase politikoa, ustelkeria eta iruzurra.
- Berez –aldez aurretik gairik iradoki gabe, alegia– emandako hiru erantzunen artean, EAEko herritarren % 12,1ek aipatu dute immigrazioa, honako arazo hauen atzetik: langabezia (% 89,5), arazo ekonomikoak (% 28,4), klase politikoa (% 23,7) eta ustelkeria eta iruzurra (% 15,6).


Txartel honetan ageri diren arazoetatik, zure ustez, zein dira Euskadiko hiru arazo nagusiak?*



- Arazoa iradokiz gero, horretarako zerrenda bat eskaintzen da, immigrazioa arazotzat hartzen dutenen portzentajea handiagoa da: % 14,8.
- Lehenengo tokian % 5,2k aipatu dute; hau da, bi aldiz baino gehiago aipatu dute, Euskadiko arazoei buruz berez emandako erantzunetan baino.
- Hala eta guztiz ere, arazo sozioekonomikoak dira gizartearen kezka nagusiak; izan ere, langabezia eta bizi-kostua ageri dira lehenengo tokian, eta haiekin batera pentsioak, osasun-sistema, aberatsen eta pobreen arteko desberdintasunak...


*2010. urtetik aurrera eman dugun gaien zerrenda ez da aurreko urteetako. Europako datuekin konparatzeko EUROSTATEk eskaintzen duen gaien zerrenda erabiltzea erabaki dugu.

Gaia aldatuko dugu. Pertsonalki zein hiru arazok ukitzen zaituzte gehien?
(Gehienez ere 3 erantzun: bat-bateko erantzuna)



- Immigrazioa arazo pertsonal gisa lehenengo tokian aipatu dutenak % 0,4 dira. Aipatu dituzten arazo guztiak kontuan hartuta, EAEko herritarren % 7,5entzat immigrazioa arazo pertsonala da.
- 2013. urtearekin alderatuta portzentajeak zertxobait gora egin du, % 5,3tik % 7,5era pasa da.
- Arlo pertsonalean gehien aipatutako arazoak langabezia (% 69,3) eta gorabehera ekonomikoak (% 33,3) dira.

Konparazioa aurreko barometroekin: zeintzuk dira Euskadiko hiru arazorik garrantzitsuenak?
(Gehienez hiru erantzun: erantzun espontaneoak)




- Aurreko urteko barometroarekin alderatuta, langabeziari lotutako arazoa mantendu egiten da, 2013arekin alderatuta zertxobait behera eginez. Ekonomiarekin eta klase politikoari lotutako arazoek gora egin dute.
- Immigrazio arazotzat hartzen dutenen portzentajeak 2009ko kopuruen antzeko samarrak dira.

2


Lanaren funtzionaltasuna

Etorkinak behar ditugu gure ekonomiaren sektore batzuetan lan egiteko:



- Immigrazioari buruzko ikuspegi funtzional eta utilitarista nabarmen higitu da krisiaren inpaktuaren ondorioz.
- 2004an % 80k uste zuten etorkinak behar genituela zenbait sektoretan lan egiteko; 2014an, berriz, % 30,4 dira iritzi hori dutenak.
- Halaber, 2004an herritarren % 11k uste zuten etorkinik ez genuela behar sektore ekonomiko batzutan. Aitzitik, 2014an iritzi hori dutenak % 47,4 dira, eta gehiengoaren aukera gisa finkatu da.

Etorkinei esker, ekonomiak hobera egiten du, bertakoek nahi ez dituzten lanpostuak betetzen dituztelako:




- Antzeko zerbait gertatu da bertakoek nahi ez dituzten lanpostuak etorkinek betez gero ekonomiak hobeto funtzionatzen duela dioen adierazpenarekin. 2004an % 63 ados zeuden baieztapen horrekin; aitzitik, 2014an % 32,8 daude ados.
- Ideia hori baztertzen duten herritarren proportzioa % 17tik % 41,1era igo da. Bigarren urtez, gehiengoa dira bertakoek nahi ez dituzten lanpostuak etorkinek betez gero ekonomiak hobeto funtzionatzen duela dioen adierazpenarekin ezados daudenak.

3

Elkarbizitza

Zure ustez, EAEn, bertako eta atzerriko biztanleen arteko harremanek hobera egin dute azken urtean, okerrera egin dute, ala berdin daude?




- Oro har, EAeko herritarren iritziz, biztanle atzeritarrekin dituzten harremanak ez dira aldatu azken urtebetean (% 71,3).
- Nolanahi ere, gehiago dira harremanek okerrera egin dutela uste dutenak (% 17,4) hobera egin dutela uste dutenak baino (% 7,6).
- Berdin jarraitzen dutela uste duten pertsonen kopuruak 15 puntu baino gehiago egin du gora 2013arekin alderatuta. Honen arrazoa, hein batean, hobera egin dutela uste dutenen kopurua txikiagoa delako da (-5,4). Hala gertatzen da ere okerrera egin dutela uste dutenen kopuruarekin (-9,6).

4

Kultur-aniztasunaren kudeaketa


Kultura-aniztasunari buruzko zenbait adierazpen esango dizkizut. Esan iezadazu horietako bakoitzarekin zein neurritan zauden ados edo kontra



Lehen batean, EAEko herritarrak jarrera positiboak dituzte kultura-aniztasunari dagokionez:


- Beste talde etniko batzuk egoteak dakarren kultura-aberastasunaren alde egiten dute: % 49,7 ados daude eta % 26,1 ez daude ados (2013an % 53,1 ados zeuden eta % 22,2 ez zeuden ados).
- % 57,8k uste dute etorkinen erlijio-praktikek ez dutela arriskuan jartzen gure bizi-estiloa, eta % 19k berriz arrisku hori ikusten dute; 2013an herritarren % 57 ez zeuden ados, eta % 19 ados zeuden.
- 2013ko datuekin alderatuta, kultura-aniztasunaren aldeko jarrerak zertxobait behera egin dute.

Euskadin bizikidetzeta hobetzeko zenbait aukera emango dizkizut. Esan iezadazu horietako bakoitzarekin zein neurritan zauden ados edo kontra



- % 80,5ek uste dute etorkinak gure ohiturak eta tradizioak ezagutzen ahalegindu beharko liratekela (2013an % 83,3k hala uste zuten).
- % 74,1ek uste dute bai atzerriko etorkinak bai bertako herritarrek ahalegindu behar direla (2013an hala zuten % 72,4k).
- % 57,2k adierazi du, erabat onartuak izateko, etorkinek uko egin beharko lieketela hemengo legediarekin gatazkak pizten dituzten erlijio- eta kultura-alderdiei. (2013an % 67,5ek hala uste zuten).
- % 61,2k uste dute bertakoek ez dutela ahaleginik egin behar etorkinen ohitura eta tradizioetara egokitzeko (2013an, berriz, % 59,9k hala uste zuten).

Euskal gizartearentzat hobe da bertan bizi garen guztiok ohitura eta usadio berberak izatea




- Azken urteotan ikuspegi asimilazionistak indarra hartu du. Horrenbestez, gaur egun EAEko herritarren % 58,2k uste dute ohitura eta tradizio berberak dituzten pertsonak osatutako gizartea hobe dela.
- Herritarren % 17,3 ez daude ideia horrekin ados, 2013. urtean, aldiz, % 25,3.

5

Eragin sozialak

Esan iezadazu horietako adierazpen bakoitzarekin zein neurritan zauden ados edo kontra




- Euskal gizartearen % 41,8k uste du atzerritarren presentziak segurtasun-eza eta delinkuentzia sortzen dituela. Portzentaje honek 7,3 puntu egin ditu behera 2013arekin alderatuta. % 33,3 ez daude ideia honekin ados eta % 23,5 ez daude ez ados ez kontra.
- Halaber, % 46,8k uste dute etorkinek zerga gutxiago ordaintzen dituztela gero jasotzen dutena baino, eta % 18,9k kontrakoa uste dute.
- % 37,2k uste dute etorkinek soluzio bat ekar dezaketela, biztanleriaren zahartzea dela-eta. 2013. urtearekin alderatuta, portzentaje honek 13 puntu egin ditu behera, % 50,2tik % 37,2ra.
- % 64,6k uste dute etorkinek gehiegizko onura lortzen dutela gizarte-babeserako sistematik. Portzentaje hau mantendu egiten da 2013tik.

6


Zerbitzu eta eskubideak

Orain bertakoen zenbait eskubide aipatuko ditugu. Zure ustez, Euskadin bizi diren etorkinek ere baldintza beretan izan behar lituzkete eskubide horiek?




- Etorkin guztiek eskubideak izan behar dituztela uste duten pertsonen portzentajeek berdin jarraitu edo gora egin dute 2013arekin alderatuta, zerbitzu juridikoa izan ezik, zertxobait behera egiten duena (-0,9)
- 2013. urtearekin alderatuta, hezkuntza (+9,6 puntu) eta osasun zerbitzuarekin (+ 6 puntu) loturiko eskubideek egiten dute gora, batez ere, eskubide unibertsal gisa.
- Aurreko urteetako emaitzekin alderatuta, euskal gizartearen iritzia da eskubideak izateko ezinbestekoa dela egoera erregularrean egotea, osasun-asistentziaren eta hezkuntzaren kasuan izan ezik.
- 2013ko datuekin alderatuta, erregularizazioa eta eskubideak izatearen arteko erlazioak gora egiten du zenbait eskubideri buruz hitz egiten dugunean, hala nola, zerbitzu juridikoa (+3,3), senideak ekartzea (+3,1), bozkatzea (+1,2) eta gizarte-laguntza (+3,9). Mantendu egiten da babes ofizialeko etxebizitza izateko eskubidea.

Immigrantek eskubideak eta zerbitzuak izatea... Osasun zenbitzua



- Etorkin guztiei osasun-asistentzia bermatu behar zaiela adierazten duen iritziak gora egin du.
- Halaber, osasun-asistentzia egoera erregularrean dauden etorkinei soilik eman behar zaiela uste duten pertsonen portzentajeak behera egin du eta 2007ko datuen oso antzekoak dira.
- Labur esanda, 2013ko barometroarekin alderatuta, datuek hobera jo dute, eta hau horrela, osasun-eskubidea guztientzat izan behar duela uste duten pertsonen portzentajeak gora egin du (+6).

Immigrantek eskubideak eta zerbitzuak izatea... **Hezkuntza**




- Pertsona guztiak hezkuntza eskuratzeko eskubidea dutela uste dutenen portzentajeak gora egin du (+9,6) eta eskubide hori egoera erregularrean dauden etorkinentzat mugatzen dutenen proportzioak behera egin du, % 38,1etik % 29,2ra.

7


Immigrazio politika

Zure ustez, zer politika-mota litzateke egokiena atzerritar langileen kasurako?




- EAEko herritarren % 8,7 etorkinei sartzeko inolako lege-oztoporik ez jartzearen aldekoak dira, eta % 5,9 edozein bitarteko erabiliz eragoztearen alde ageri dira.
- % 64,2 sartzeko baimena ematearen alde daude, lan-kontraturen bat baldin badute; eta % 17,1 sartzeko baimena ematearen aldekoak dira, baldin eta beste lege-betekizun batzuk betetzen badituzte.
- Dena dela, portzentajeak gorabehera, lan-kontratua, hainbat eta hainbat inkesta eta azterlanetan ikusi bezala, berme nahikotzat jotzen du gizartearen zati handi batek, ziurtasuna eragiten duelako eta susmo txarrak desagerrarazten dituelako.

Esaniezadazu horietako adierazpen bakoitzarekin zein neurritan zauden ados edo kontra:



- Euskal gizartearen iritziz, lanik gabe geratzea ez da arrazoi nahikoa atzerriko langileak kanporatzeko (% 57). 2013an % 52,4k uste zuten hau.
- EAEko herritarrak zorrotzagoak dira indarrean dagoen legedia betetzeari dagokionez: % 62,9 ageri dira edozein delitu egiten duten atzerritarrak kanporatzearen alde. Jarrera honek zertxobait behera egin du aurten (-1,7 puntu) 2013. urtearekin alderatuta. 2012an eman zen igoera nabarmenaren ondoren (+23,3 puntu), hurrengo urteetan bere horretan mantendu da gora-behera gutxirekin.

Zure iritziz, zer egin beharko luke Gobernuak etorkin "irregularrakin"?




- Euskal gizarteak orain ere lana eta atzerriko langileak lotzen ditu; horrenbestez, lana dutenen egoera erregularizatzearen alde (bizileku-baimenak ematearen alde) ageri dira (% 54,1). Lotura hori handiagoa da 2013an baino, % 51,7koa baitzen orduan.
- Etorkin "irregularrak" guztiak kanporatu behar direla uste duten pertsonen portzentajea % 10,9ra jaitsi da 2014an; 2013an, % 16,6koa zen.


8

Tolerantzia-indizea


Tolerantzia-indizearen bilakaera



BPGren urtetik urterako aldaketa-tasak (%) EAEn



Tolerantzia Indizearen bilakaera talde handien arabera



- 2013arekin alderatuta, ez dago aldaketa handirik hiru talde handien indizean, hala ere, datu esanguratsua badago: tolerantteen taldea ugariagoa da eta 3 puntu egin ditu gora (% 37,1 dira aurten eta % 33,9 ziren 2013an); anbibalenteen taldeak ere 5 puntu egin ditu gora (2013an % 35,9 izatetik, 2014an % 41,1 izatera pasa da); eta uzkurak gutxiago dira aurten 8 puntu baino gehiago galdu eta gero (2013an % 31,2^a izatetik, % 21,8ra izatera igaro dira).

Immigrazioarekiko tolerantzia-indizearekin lotutako aldagaiak

Tolerantzia-atalase txikiena duten pertsonen profila	Aldagaia	Esangura	Tolerantzia-atalase handiena duten pertsonen profila
Emakumezkoak	Sexua	0,020	Gizonezkoak
64 urte eta gehiago	Adina	0,000	18-44 urte
Lehen mailako ikasketak, ikasketarik ez	Ikasketak	0,000	Goi- eta erdi-mailako unibertsitate-ikasketak
5.000 biztanlerarte	Bizilekua	0,040	Hiriburuak
Katolikoak, praktikanteak edo ez, beste erlijioak	Erljioa	0,000	Agnostikoak, ateoak eta ezaxolak
Erdaldunak	Hizkuntza	0,000	Euskaldunak
Batez ere espainiar sentitzen direnak	Identitate-sentimendua	0,000	Batez ere euskaldun sentitzen direnak
Eskuina	Ideologia	0,000	Ezkerrekoak eta zentro-ezkerrekoak
Hilean 1.800 €, gehienez	Diru-sarrerak	0,000	Hilean 1.800 € baino gehiago
Gustura ez daudenak	Egoera ekonomikoa	0,000	Gustura daudenak eta ezaxolak
Langabeak, erretiroa hartutakoak eta etxeko lanetan aritzen direnak	Lanbidea	0,000	Ikasleak
Estatus baxua eta erdi-mailako baxua	Estatusa	0,000	Estatus altua eta erdi-mailako altua
Eragin handia	Krisiaren eragina	0,000	Eragin baxua edo ertaina
Ezkorrak	Baikortasuna	0,000	Baikorrak eta ezaxolak
Etorkinak eta bertakoak nahasita	Auzoa	0,001	Bertakoen nagusitasuna
Inolako hartu-emanik ez edo nolabaitekoa	Elkarreragina eremu pribatuan	0,000	Hartu-eman handia
Inolako hartu-emanik ez	Elkarreragina eremu publikoan	0,000	Hartu-eman handia edo nolabaitekoa
Inolako hartu-emanik ez	Elkarreragina aisialdian	0,000	Hartu-eman handia

Ondorio nagusiak:

1. Datuen argitara, EAeko herritarrek atzerriko immigrazioaren aurrean jarrera anibalentea dutela esan behar dugu: batzuen jarrera irekia eta tolerantia da, eta beste batzuen, aldiz, kontrakoagoa.
2. Lan-merkatuari eta etorkinen kolektiboak merkatu horretan duen funtzionalitateari lotutako kontuak neurtzen dituzten elementuek gutxitzen jarraitu dute azken urte honetan.
3. EAeko herritarrek lanpostuarekin loturiko immigrazio-politiken alde egiten dute oraindik ere, beste hainbat azterlan eta ikerketetan ere ikus daitekeenez. Hala eta guztiz, enplegu-ezaren eta krisiaren ondorioz, gizarteratze-faktore horrek indarra galdu du gizartean.
4. Atzerriko etorkinak iristearekin lotutako gaien artean, ziurgabetasun eta susmo txar handiak sortzen dituen alderdi bat da euskal gizartearen ongizate-egoerari eusteari dagokiona. Etorkin guztiek eskubide sozialak izan behar dituztela adierazten duen ideari eutsi zaio, eta ehunekoek gora egin dute 2013arekin alderatuta, laguntza juridikoak izan ezik (- % 0,9). Nabarmentzekoa da 2013an hainbat eskubideri eman zaien izaera unibertsala, hala nola, hezkuntzari eta osasunari.
5. Kultura-aniztasunaren aberastasun soziala azpimarratzen duten iritzien aurrean jarrera asimilazionistak ere ageri dira, azken boladan finkatu eta areagotu egin direnak.
6. Migrazio-fenomenoak gizartean dituen ondorioekin loturiko zenbait elementutan gorakada izan da; esate baterako, gizarte-babeseko sistematik etekin gehiegi ateratzen dutela. Bestalde, behera egin du etorkinen etorrerak segurtasun-eza handitzearen pertzepzioak. Zertxobait behera egin du delituak kanporatzearekin lotzen dituen diskurtsoak, eta baita egoera irregularrean dauden etorkin guztiak kanporatzeko ideiak ere, iazkoarekin alderatuta.



ikuspegi

Immigrazioaren Euskal Behatokia
Observatorio Vasco de Inmigración

eman ta zabal zazu



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

ENPLEGU ETA GIZARTE
POLITIKETAKO SAILA
*Familia Politikarako eta Komunitate
Garapenerako Zuzendaritza*

DEPARTAMENTO DE EMPLEO
Y POLÍTICAS SOCIALES
*Dirección de Política Familiar
y Desarrollo Comunitario*